

ATLANTIKOKO HERRIEN
MUSIKA & KULTURA JAIALDIA

FESTIVAL DE MÚSICA & CULTURA
DE LOS PUEBLOS DEL ATLÁNTICO

FESTIVAL DE LA MUSIQUE & DE LA CULTURE
DES PEUPLES DE L'ATLANTIQUE

Atlantikaldia

Erreteria

IRAILAK 18-21 SEPTIEMBRE



Atlantikaldia

Irailaren 18tik 21era Atlantikaldia
Atlantikoko herrien musika eta
kultura jaialdia antolatuko da
lehen aldiz Erreterian.

04. or

Conciertos de música

DE TEMPS ANTAN
CELTAS CORTOS
CARLA PIRES
THE BONNY MEN

05. or

Eragileen indarra

Ekintza bakoitzaren atzean
eragile ezberdinen ideiak
daude

06. or

DOAN

1. ZK.
2014

ITSASOARI BEGIRA MIRANDO AL MAR



Errenteriak itsasoarekin eta portuarekin izandako iraganeko harremanen lekuko da armarrria eta bertan olatuen gainean gaztelu bat ikusten da.

Armarrian bi elementu nagusi antzematen dira, itsasoa eta harresi barruko herria. Alegia, badia gainean harresiz inguratutako herria.

El escudo de Errenteria, donde podemos ver un castillo sobre las olas, es testigo de la relación que la localidad mantuvo en el pasado con el mar y el puerto.

En el escudo destacan dos elementos principales, el mar y el pueblo rodeado por murallas. Es decir, un pueblo amurallado sobre la bahía.



Errenteriako armarririk zaharrena.



Bailara osoan zeuden lau herriguneetatik (Orereta, Elizalde, Altzibar eta Iturriotz), **Errenteria zen itsas bakarra, itsasora sarbidea zuen bakarra.** Hainbat familia finkatu ziren bertan, eta euren izaera eraikitzaileari esker, ibaiaren abantailak ustiatzen jakin zuten, itsasoaren industrian eta burdinolen esparruan lan egiten hasiz.

1320an Gaztelako erregeak Hiri-Gutuna eman zion herriari. Garai hartan, itsas merkantzien **zergak kobratzen** ziren, errenta izenekoak, eta jendea Errenteria deitzen hasi zen. Portuko lekurik lasai eta babestuenetako batean joan zen herria garatzen. **Errenteriak portua eta lonjak zituen**, eta hein handi batean itsasoari lotuta garatu zen herria. Lonjei esker, Errenteriak badiak itsas-merkataritzan zuen garrantziari etekin nabarmena atera zion, izan ere, portura iritsi edo ateratzen ziren salgaien gainean hainbat kobratzeko eskubidea baitzuen.

Errenterian nabigazioarekin zerikusia zuen jendea bizi zen eta **Oiartzun ibaiaren bazterrean eta badian bost ontziola** finkatu ziren. 800 tona arteko itsasontziak egiten zituzten eta 200 itsasgizon lanean aritzera

heldu ziren. Errenteria izan zen, **1590-1730 bitartean Euskal Herriko ontzigintza gune garrantzitsuenetakoa.**

Espainiako erregeak Donostiari emandako pribilegioek ontzigintza sektorea ahuldu zuen. Honez gain, **Oiartzun ibaia lokatzu eta jendeak zaborrak botatzen zituen ibaira.** Bestalde, hainbat itsasontzi hondoratu ziren eta horrek guztiak eragin zuen portuko urek geroz eta sakonera gutxiago izatea. Portua lehortzen joan zen eta itsasoa urrutiratzen.

Errenteria itsasoari begira dago. Itsas bazterreko herria izanik, bere identitatearen oinarri da itsasoak dakarrena eta hori errenteriarren ADNan antzematen da.

*Bailara osoan Errenteria
zen itsas bakarra, itsasora
sarbidea zuen bakarra.*

*Errenteria era la única
costera, la única con acceso
al mar en toda la bahía.*

*Errenteriak portua eta lonjak
zituen. 1590-1730 bitartean
Euskal Herriko ontzigintza gune
garrantzitsuenetakoa.*

*Errenteria tenía puerto y lonjas.
Entre 1590-1730 Errenteria fue uno
de los lugares más importantes del
País Vasco*



Jon Gracia Arregik eginiko koadroa. Errenteria 1610ean irudikatuz.

Errenteria, nabigatzaile handien jaioterria izan da:

Errenteria ha sido
lugar de nacimiento
de importantes
navegadores:

Martin Perez Uranzukoa

Matxino Errenterikoa
Itsas Handiko jenerala
General de Alta Mar

Pedro Zubiaurrekoa

Itsas Handiko jenerala
General de Alta Mar

Martin Zamalbidekoa

Hegoaldeko Itsas jenerala
General de los Mares del Sur

Martin Zubietakoa

Itsasgizon eta kosmografoa
Marino y cosmógrafo

EN REGARDANT LA MER

Sur les armes d'Errenteria, nous pouvons voir un château sur les vagues, qui témoigne des liens qui unissaient autrefois la localité à la mer et au port.

Des quatre communes de la baie (Orereta, Elizalde, Altzibar et Iturrioz), Errenteria était la seule côtière. Entre 1590 et 1730, Errenteria fut un exemple en matière de construction navale au Pays Basque et, grâce au port et aux halles, la localité put profiter du commerce maritime en touchant des taxes (rentas en espagnol) sur les marchandises qui y transitaient, d'où son nom : Errenteria.

Les privilèges concédés par le roi d'Espagne à la ville de Donostia-San Sebastián dans la région et l'abandon de la rivière Oiartzun furent responsable de l'assèchement de la mer et donc de l'éloignement de la localité de son origine et de sa tradition.

Pourtant, Errenteria continue de regarder vers la mer, car elle fait partie de son histoire et de son identité.

EYE ON THE SEA

The Errenteria coat of arms features a castle, and below it, waves, proof of the relationship that the town once had with the harbour and the sea.

Of the four towns along the bay (Orereta, Elizalde, Altzibar e Iturrioz), Errenteria was the only one actually on the coast. From 1592 to 1730 Errenteria was closely associated with shipbuilding in the Basque Country. Awing to the port and fishmarket, the town benefited greatly from maritime trade, collecting revenue (rentas) on incoming goods. This explains the origin of the name Errenteria.

The privileges bestowed on Donostia by the King of Spain, coupled with neglect for the Oiartzun river, dried up the benefits of the sea, distancing Errenteria from its origins and tradition.

Nonetheless, Errenteria will always keep its eye on the sea, as it is part of its history and identity.

De las cuatro localidades que había en la bahía (Orereta, Elizalde, Altzibar e Iturrioz) **Errenteria era la única costera, la única con acceso al mar**. Numerosas familias se afincaron en sus tierras y gracias a su carácter constructivo, supieron explotar las ventajas que les ofrecía el río, comenzando a trabajar en la industria de la mar y en el sector de la ferrería.

En 1320 el rey de Castilla concedió al pueblo una Carta de Fundación. En aquella época, se cobraban impuestos de las mercancías marinas, llamadas rentas, y de ahí que la gente empezase a llamar a la localidad Errenteria. El pueblo se fue ampliando en uno de los lugares más tranquilos y protegidos del puerto. **Errenteria tenía puerto y lonjas**; y, en gran medida, el pueblo evolucionó ligado al mar. Gracias a las lonjas,

Errenteria sacó buen partido de la importancia que tenía la bahía para el comercio marítimo. Lo cierto es que la localidad tenía derecho a cobrar cierta cantidad por cada mercancía que llegaba al puerto o salía de él.

En Errenteria vivía gente relacionada con la navegación y, por ello, **se implantaron cinco astilleros repartidos en la orilla y en la bahía del río Oiartzun**. Construían barcos de alrededor de 800 toneladas y llegaron a tener a 200 hombres trabajando en ellos. **En materia de construcción naval, entre 1590-1730 Errenteria fue uno de los lugares más importantes del País Vasco**.

Los privilegios concedidos por el rey de España a Donostia – San Sebastián debilitaron el sector.

Además de esto, **el río Oiartzun comenzó a embarrarse y la gente arrojaba basura a él**.

Por otro lado, fueron varios los barcos que se hundieron y todo ello provocó que las aguas del puerto fuesen cada vez menos profundas. El puerto se fue secando y el mar quedaba cada vez más lejos.

Errenteria está mirando al mar. Siendo una localidad a orillas del mar, todo aquello que trae el mar forma parte de su identidad y eso queda reflejado en el AND de los y las errenteriaras.

ATLANTIKOKO HERRIEN MUSIKA & KULTURA JAIALDIA

FESTIVAL DE MÚSICA & CULTURA DE LOS PUEBLOS DEL ATLÁNTICO

*Irailaren 18tik 21era Atlantikaldia
Atlantikoko herrien musika eta kultura
jaialdia antolatuko da lehen aldiz
Erreterian. Izenak ondo dioen moduan,
Erreteria Atlantikoak lotzen dituen
herrien topagune, lekuko eta eszenatoki
bilakatuko da.*

*Del 18 al 21 de septiembre Erreteria
acogerá por primera vez Atlantikaldia,
el festival de música y cultura de los
pueblos del Atlántico. Como el mismo
nombre indica, Erreteria será testigo
y escenario del encuentro de los
municipios ligados al Atlántico.*



Munduko txoko ezberdinetako musika entzungo da lau egunez, doinu anitzak itsasoak lotzen dituen kontinenteetatik etorriak. **Erreteriak bere iraganarekin bat egin nahi du**, itsasoari begira dagoen herria izaki, itsasoak eman dion guztia ahora ekarri nahi da orain. Alegia, erreteriarrek garai bateko historia ondo ezagutu eta Atlantikoarekin izandako lotura gogora ekarri.


Lau egunez jai giroa nabarmenduko da Erreteria kaleetan. Musika emanaldiak, erakusketak, artisau-azokak, dantza emanaldiak, bisita gidatuak, jolasak, herri bazkaria, estropadak, ... Itsasoa jaialdiaren konexio puntu izanik, ez da kasualitatea Erreteria Atlantikoak dakarren kultura-zabalaren eszenatoki izatea. Esaterako: Erreteriatik Quebecera hainbat ontzi abiatzen ziren baleak arrantzatza eta hori benetako gertakizuna da. Horrelako, istorio asko daude eta Atlantikaldia horren aitorleku izango da.

Erreteriarren parte hartzea ezinbestekoa izan da jaialdia antolatzerakoan, ekintza bakoitzaren atzean eragile ezberdinen ideiak baitaude eta horrek are eta partehartzaileagoa egiten du Atlantikaldia. Herritik sortu den jaia izan da eta horrek egiten du berezi jaialdia.

Durante cuatro días los sonidos de distintos rincones del mundo unidos por el mar sonarán en la localidad. **Erreteria quiere rememorar el pasado** como la localidad a orillas del mar que un día fue y recordar todo lo que el mar le dio. Los y las erreteriaras conocerán su historia y recordarán la estrecha relación con el Atlántico de la localidad en el pasado.

Las calles de Erreteria se llenarán de actividades durante cuatro días con conciertos de música, exposiciones, mercados artesanos, bailes, visitas guiadas, juegos, actividades gastronómicas, remo, ... Siendo el mar el punto de conexión del festival, no es casualidad que Erreteria se convierta en escenario de la extensa cultura que proviene del Atlántico. Por ejemplo, es un hecho real que varias embarcaciones partían a pescar ballenas desde Erreteria a Quebec. El pasado de Erreteria está lleno de relatos de los que Atlantikaldia será testigo.

La participación de los y las erreteriaras será imprescindible a la hora de organizar el festival, ya que cada actividad cuenta con ideas de distintos agentes que harán de Atlantikaldia un festival participativo. Es una fiesta creada en el pueblo y por eso es especial.



FESTIVAL DE LA MUSIQUE & DE LA CULTURE DES PEUPLES DE L'ATLANTIQUE

Du 18 au 21 septembre, Erreteria accueillera pour la première fois Atlantikaldia, le festival de la musique et de la culture des peuples de l'Atlantique. Comme le propre nom l'indique, Erreteria sera à la fois le témoin et la scène de la rencontre entre les communes tributaires de l'Atlantique. Pendant quatre jours, les rues de la localité se rempliront d'activités : concerts de musique, expositions, marchés d'artisanat, danses, visites guidées, parties de pêche dans la rivière Oiartzun, jeux, activités gastronomiques, avirons, ...

ATLANTIC PEOPLES' MUSIC AND CULTURE FESTIVAL

From 18 to 21 September Erreteria will host the first edition of Atlantikaldia, the Atlantic peoples' music and culture festival. Erreteria will be witness to and set the stage for towns with links to the Atlantic. For four days the streets of Erreteria will come alive with concerts, exhibitions, artisans' markets, dancing, guided tours, fishing in the Oiartzun River, games, gastronomic activities, rowing, and much, much more.

MUSIKA MÚSICA

OS TEGU NA 18 JUE VES



CARLA PIRES

Fadoaren ahotsa. Portugaldar gaztea belaunaldi berriaren abeslaririk nabarmenetakoa da. Bere ahots berdingabe eta sentzuala lagun, oholtza gainean indar berezia du entzulearen arreta bereganatzeko.

La voz del fado. Esta joven artista es una de las voces representantes de la nueva generación del fado. Posee un talento innato para ganarse a la audiencia gracias a sus intensos conciertos y su voz única y sensual.



BIDAIA

Mixel Ducau eta Caroline Phillips bikoteak euskal herriko tresnak –alboka edo-eta ttun-ttuna– beste tradizioetatik etorritako tresnekin nahasten dituzte –zarrabetea, banbuzko klarineta edo indio flauta– euskaraz, ingelesez eta arabieraz abestuz.

El repertorio de Mixel Ducau y Caroline Phillips incluye instrumentos tradicionales vascos como la alboka o el ttun-ttun combinados con instrumentos de otras músicas tradicionales como el zarrabete, el bambú clarinete o la flauta india.

OS TIRA LA 19 VIER NES



DE TEMPS ANTAN

2007an Quebec-en sortutako hirukoak estudioko hiru disko argitaratu ditu. Eric Beaudry, André Brunet eta Pierre-Luc-en biolinak, eskusoinuak, armoniak, gitarrak eta bouzoukiak eztanda sortzen dute taula gainean.

Este trío formado en Quebec en 2007 ha publicado tres trabajos de estudio. Eric Beaudry, André Brunet y Pierre-Luc ofrecen una poderosa explosión de violín, acordeón, armónica, guitarra y bouzouki.



THE BONNY MEN

Zazpi musikariz osatua, 2011 geroztik Irlandako folklore tradizionala jorratzen duten taldeen artean erreferentea da. Soinu dinamiko eta landua sortzen dute, musika tradizionalaren esentzia maila gorenera eramanez.

Formada por siete músicos en 2011, se ha convertido en una de las bandas referentes de la escena tradicional folclórica de Irlanda con un sonido dinámico que captura la esencia de la música tradicional en su máxima expresión.

LA RUN BATA 20 SÁBA DO



HAMDACHA DE FES – DJ CLICK

Musika tradizionalak eta musika elektronikoak bat egingo dute. Batetik, Magrebeko instrumentuak, erritmoak eta melodiak. Bestetik, DJ Click mestizaiaren sustatzaile eta esploratzaile alkimistaren dantzarako musikak.

Fusión entre música tradicional y música electrónica que nos acercará al Magreb musical con instrumentos, patrones rítmicos y melódicos. Todo ello con la colaboración del explorador alquimista y precursor del mestizaje DJ Click.



CELTAS CORTOS

Laurogeigarren hamarkadan Valladoliden sortutako taldeak rock musika eta musika zelta nahasten ditu. Orain arte argitaratu dituen 18 diskoekin, taldeak ez du aurkezpen handirik behar.

Veterano grupo formado en la década de los 80 en Valladolid que fusiona música rock con influencias celtas. Los 18 discos publicados hasta la fecha son su carta de presentación.

ERAGILE BATZUEN ESANAK

TESTIMONIO DE ALGUNOS AGENTES

JON BAGÜES ERRIONDO
ERESBIL

“Bereziki asko poztu dit, kultura arloko jendeaz gain, herritar ezberdinek bat egin dutela ikusteak”

1974tik Euskal Herriko musika jaso, zaindu eta kaleratzen da Eresbilen. Horretan dihardu Jon Bagües Erriondo erreteriarrak eta Atlantikaldiaren jaialdia ate joka izanik, berarentzat itsasoak nolako doinua duen esan digu.

Itsasoaren uhinen erritmoa du Atlantikaldiak. Erreteriak itsasoarekin duen lotura izugarria da eta asko pozten naiz halako jaialdi baten aitzakian gure herriko historia zabaltzea eta ahoz aho ibiltzea. Nire amonak orain ehun urte izango zituen eta beti kontatzen zigun bera txikia zenean Biteri kalearen erdia itsasoa zela.

Zer diozu Atlantikaldiaz?

Aukera ona da Erreterientzat, nolabait musika, artea eta kultura herrian sumatzea ederra baita. Gainera, ez soilik musika, baizik eta, jaialdia alor ezberdinetara irekita dagoela ikusten da. Bereziki, asko poztu dit ikusteak, kultura arloko jendeaz gain, herritar ezberdinak bat egin dutela Atlantikaldiarekin eta hori da benetan aberasgarria.

Erreteriak behar du halako jaialdi bar?

Bai, eta gainera ilusioz hartzen dugu. Pozgarria da uda amaierarekin batera gure herriak jaialdi bat antolatzea eta bertako jendeaz gain kanpokoak ere animatu nahiko nituzke, izango baita zer ikusi.



“En especial me alegra ver que, además de la gente vinculada a la cultura, distintos ciudadanos y ciudadanas se han unido a la iniciativa”

Desde 1974 Eresbil reúne, cuida y publica la música vasca y ahí podemos encontrar al erreteriarra Jon Bagües Erriondo. A las puertas del festival Atlantikaldia hemos estado con él y nos ha contado a qué suena el mar.

Atlantikaldia tiene el ritmo de las ondas del mar. El vínculo de Erretería con el mar es increíble y me alegro muchísimo de que un festival así tenga en cuenta nuestra historia y ayude a darla a conocer. Mi abuela, que ahora mismo tendría 100 años, siempre nos contaba que cuando ella era pequeña la mitad de la calle Biteri era mar.

¿Qué dirías sobre Atlantikaldia?

Es una oportunidad para Erretería ya que sentir la música, el arte y la cultura en el pueblo es maravilloso. Además, Atlantikaldia va más allá de la música. En especial me alegra ver que, además de la gente vinculada a la cultura, distintos ciudadanos y ciudadanas se han unido a la iniciativa. Ahí está lo realmente enriquecedor.

¿Erretería necesita un festival así?

Claro, y además lo acogemos con mucha ilusión. Es un placer terminar el verano con un festival así al que, por supuesto, invito a la gente de fuera también a acudir. Habrá muchísimas cosas para ver.

MAIKA RODRIGUEZ TAMERON
HIBAIIKA

“Erreterian arraun egin? Jakina”

Hibaikako arraunlaria izateaz gain, Maika Rodriguez Tameron erreteriarra Oiartzun ibaiaren mareei begira egoten da egunero, ibaia bizirik dagoela sinestaraziz. Egun, 100 arraunlarik osatzen dute arraun elkarte.

Erreteriarrek arraunean?

Beste herrietako jendeak galdera hori askotan egin izan dit, baina hemen arraun egiteko tradizioa badago, itsasoa izan dugulako eta hori jende askok jakin ez arren, gure iraganaren ondorioz esan dezakegu erreteriarrek arraun egiten dugula.

Zer diozu Atlantikaldiaz?

Interesgarria izango dela oso, eta asko pozten naizela gure historia egundaino ekartzeaz, herritar askok ez baitaki zein den gure iragana eta aukera paregabea iruditzen zait.

Parte hartuko al duzu?

Bai, alde batetik traineru bat aterako dugu eta Oiartzun ibaia zeharkatuz gure herriko historia azalduko dugu, eta beste aldetik, hurrek Atlantikoko arrainak ezagutu ditzaten ibaian poliespaneko arrainak arrantzatuko ditugu. Honez gain, arraunlari ohiekin estropada bat egingo da.



“¿Remar en Erretería? Naturalmente”

Además de remar en Hibaika, la erreteriarra Maika Rodriguez Tameron pasa los días mirando al río Oiartzun y observando las mareas. Actualmente son 100 los remeros y remeras que forman el club de remo.

¿Los erreteriarra remando?

La gente de otros pueblos me ha preguntado lo mismo muchas veces. Aquí hay tradición de remar porque hemos tenido mar, aunque mucha gente no lo sepa. Por lo tanto, es justamente gracias a nuestro pasado que haya un club de remo en Erretería.

¿Qué dirías sobre Atlantikaldia?

Que va a ser muy interesante y que me alegro mucho de que nuestra historia vuelva al presente. Muchos y muchas erreteriarra no conocen nuestro pasado y me parece una oportunidad inigualable.

¿Vas a participar?

Sin duda. Por un lado, vamos a sacar una trainera y cruzaremos en río Oiartzun mientras relatamos la historia de nuestro pueblo; y por otro lado, a través de una iniciativa que consiste en pescar peces de poliespan de río, los niños y niñas se familiarizarán con los peces del Atlántico. También, se organizará una regata con antiguos remeros y remeras.

IMANOL IPARRAGUIRRE JAUREGI
ERRENKOALDE

“Komertzioarentzat erakusleioh ona da eta aprobetxatu behar dugu”

Erreteriarako komertzianta, ostalaritza eta zerbitzu elkarte da Errenkoalde eta Imanol Iparraguirre Jauregi erreteriarra da ordezkaria. 125 entitatek osatzen dute eta jaialdiari begira badute zer egin.

Zer diozu Atlantikaldiaz?

Erakusleioh bat da, halako jaialdietan jende asko ibiltzen delako eta hori aprobetxatu beharra daukagu. Horrexegatik, ordutegia luzatuko dugu, ahal den heinean erraztasunak emanez. Gainera, uda amaiera izanik bultzadatxo bat emango digu. Honez gain, jaialdiaren tematika aztertzen badugu, aukera ona dela uste dut, askorentzat arrotza den zerbait ezagutaraziko delako.

Zerk egin du Erretería ezberdina?

Herri eroso da eta komertzio eskaintza ona duena. Herritarrei begira dagoen herria da eta horrek identitate propioa ematen dio. Atlantikaldia bertakoentzat eta kanpokoentzat izango den jaialdi moduan ikusten dut eta Erretería herri ez turistikoa dela kontuan hartura, guretzat aukera ona da.



“Para los comercios es un gran escaparate que debemos aprovechar”

Imanol Iparraguirre Jauregi es el representante de Errenkoalde, la Asociación de Comerciantes, Hostelería y Servicios de Erretería. 125 entidades forman la asociación y de cara al festival tiene mucho que hacer.

¿Qué dirías sobre Atlantikaldia?

Que es un gran escaparate por el que pasará mucha gente y, sin duda, debemos aprovechar. Por eso alargaremos el horario para ofrecer todas las facilidades posibles. Además, nos dará un empujón para terminar bien el verano. En cuanto a la temática de festival, creo que es una oportunidad para dar a conocer algo que para muchos y muchas es totalmente desconocido.

¿Qué ha hecho de Erretería un lugar diferente?

Es un pueblo cómodo y con una oferta comercial muy buena. Erretería tiene en cuenta a su gente y eso le da identidad propia. Sin embargo, Atlantikaldia es un festival para los de aquí, pero también, para los de fuera. Teniendo en cuenta que Erretería no es especialmente turístico, para nosotros y nosotras es una buena oportunidad.



JULEN MENDOZA PÉREZ
Errenteriako alkatea

Errenteriak Atlantikoarekin izan zuen lotura berreskuratzea eta herritarrei horren berri ematea da Atlantikaldia jaialdiaren helburuetako bat. Herritarren inplikazioa eta parte-hartzea beharrezkoak dira horretarako, Julen Mendoza alkateak oso argi du.

Entre los objetivos marcados por Atlantikaldia, uno de los más relevantes es recuperar la memoria histórica e informar a la ciudadanía la relación que Errenteria tuvo con la mar. Julen Mendoza tiene claro que la implicación y participación de los agentes sociales es imprescindible para ello.

L'un des principaux objectifs d'Atlantikaldia consiste à récupérer la mémoire historique et à informer les citoyens sur la relation maintenue dans le passé entre Errenteria et la mer. Julen Mendoza est convaincu que pour cela, il est nécessaire d'impliquer les citoyens, car ce "sont eux qui détiennent la clé qui garantit l'avenir du festival. Sans leur participation, Atlantikaldia n'aurait aucun sens". Les amateurs de musique traditionnelle et autres expressions culturelles de l'Atlantique ont un rendez-vous à Errenteria du 18 au 21 juillet.

One of the most relevant aims of Atlantikaldia is to recapture our historic memory and educate the public about Errenteria's relationship with the sea. Julen Mendoza firmly believes that the public must be involved in this endeavour. "The public holds the key to the festival's future. Without them Atlantikaldia would make no sense." Fans of traditional music and other cultural expressions of the Atlantic will want to circle July 18-21, Errenteria, on their calendar.

“Herritarrek emango diote bihotza jaialdiari”

Lehenengo galdera derrigorrezkoa da. Nola sortzen da Atlantikaldia?

Atlantikoaren baitan jaialdia antolatzea interesgarritzat jo zuen hainbat eragilek, musika eta bestelako kultur jarduerekin. Batetik, Errenteria Pasaiko badiaren markoan kokatzen delako; eta bestetik, Oiartzun ibaiari duen garrantzia eman nahi diogulako.

Atlantikaldia Errenteriaren iragana berreskuratzeo saiakera bezala uler daiteke beraz.

Oroimen historikoa beharrezkoa da herri baten identitatea eraikitzeo; Atlantikaldia zentzu horretan ulertu behar da. Errenterian berreskuratu beharreko bi iragan ditugu: Erdi Arokoa, itsasoa eta alde zaharra lotzen dituen; eta industria garaikoa, Errenteria Manchester Txikia bezala ezagutzen zenekoa.

Iragana berreskuratu etorkizuna eraikitzeo.

Hori da, iragan horrek gure herriaren identitatea markatu du. Kontzientzia jabetze hori falta zaigu, beraz, iragana berreskuratzeo edozein ekimen beti da positiboa. Atlantikaldia bete betean dator filosofia horrekin.

Jo dezagun iraganera. Atlantikoak zein garrantzia izan du Errenterian?

Handia. Portua geneukan, eta errenta handiak kobratzen ziren merkantzia trafikoarengatik. Itsas industria ikaragarria zegoen, ekonomian pisu handia zuena. Hori da gure iragana, neurri batean galduta dagoena. Horregatik berreskuratu nahi dugu itsasoarekiko kontzientzia hori.

Gatoz jaialdira. Herriko eragileekin elkarlanean ari zarete. Zergatik?

Jaialdi bat bi modutara antola daiteke. Antola dezakezu diru asko jarri eta ikuskizun egokiak kontratatuta; arrakastatsuak izaten dira halakoak, baina nortasunik gabekoak. Atlantikaldia nortasunez jantzi nahi dugu eta horretarako ezinbestekoa da herritarren parte-hartzea. Gure helburua herritarrek iraganaren jabe egitea eta iragan harekin sentsibilizatzea bada, beharrezkoa da euren parte-hartzea sustatzea.

Lau eguneko musika eta kultura jaialdia izango da. Zer esango zenieke errenteriarrei eta bisitan etorriko diren gainontzeko guztiei Atlantikaldira gerturatzeko?

Bereziki herriko jendeari eskainitako jaialdia da, herritarrek dira jaialdia indartuko dutenak, eta jaialdiaren etorkizuna bermatuko dutenak. Herritarren partehartzea lortzen ez badugu, bihotzik gabeko jaialdia

izango da, eta ez dugu hori nahi. Hori esanda, kanpotarrak ez nituzke ahaztu nahi. Musika programak indar berezia hartuko du, itsasoaren bestaldetik talde gonbidatuak izango ditugulako: Irlanda, Quebec, Maroko... Musikak herrien nortasunari ematen dion zera horretan sinisten duenak Errenterian zita bat du irailaren 18tik 21era.

Zer emango dio Atlantikaldiak Errenteriari?

Gauza asko, baina iruditzen zait kulturalki indartsuak izango diren sinergiak sortuko dituela, elkartrukeak sor daitezke oso modu naturalean.

Jarraipena izango duen jaialdia izango al da?

Etorkizunari begira jaialdia indartzea da gure asmoa, txikitik handirako urratsa ematea. Lehenengo erronka, hala ere, aurtengoa ahalik eta ondoen antolatzea da. Inertziak ez dugu jarraituko, hori argi dugu. Urrian balorazioa egingo dugu, eta hausnarketa horretan etorkizuneko bide orria zehaztu beharko da. Hori da borondatea, baina pausoz pauso joan behar dugu.

“La ciudadanía es el alma máter del festival”

La primera pregunta es obligada. ¿Cómo surge Atlantikaldia?

Fueron los y las agentes sociales del municipio quienes vieron la necesidad de organizar un festival en torno al Atlántico, con la música y otras actividades culturales como protagonista. Hay dos razones para ello: la primera, que nuestro municipio se encuentra dentro del marco de la bahía de Pasajes. Y la segunda, potenciar la importancia del río Oiartzun.

¿Atlantikaldia es una forma de recuperar el pasado de la villa?

La memoria histórica es necesaria para construir la identidad de todos los pueblos, y el festival va encaminado a ello. En nuestro municipio tenemos dos cuentas pendientes con la historia: la que nos une al mar, y la que nos une a la industria y nos lleva al Manchester Pequeño, que es como se conocía Errenteria.

Recuperar el pasado para construir el futuro.

Eso es, queremos recuperar esa franja histórica que ha marcado nuestra identidad. Nos falta rellenar/recuperar ese vacío que tenemos en nuestra conciencia. Atlantikaldia nace con esa filosofía, y todo festival que tiene como

objetivo recuperar la memoria histórica creo que debe ser bienvenido.

Viajemos al pasado. ¿Cuál es la importancia del Atlántico para Errenteria?

Grande, sin lugar a dudas. Aquí hemos tenido puerto, y el tráfico de mercancías dejaba mucho dinero con todos los impuestos. La industria naval jugaba un papel hegemónico en nuestro municipio. Con el festival queremos recuperar toda esa historia que para muchos y muchas errenteriaras ni existe.

Volviendo al festival. La organización cuenta con la implicación de los agentes sociales. ¿Por qué?

Existen dos formas de organizar este tipo de eventos. Puedes hacerlo inyectando mucho dinero y diseñando un programa atractivo. Funciona, cierto, pero este tipo de festivales no consigue arraigarse. Nuestra idea es dotar al festival de identidad propia, y para ello necesitamos implicar a los y las agentes sociales. Si pretendemos sensibilizar a nuestra ciudadanía con nuestro pasado, debemos impulsar su participación.

Habéis confeccionado un programa de cuatro días. ¿Por qué nadie debe perderse Atlantikaldia?

En primer lugar, quisiera invitar a los y las errenteriaras, que son los que tienen la llave que garantice el futuro del festival. Sin su participación Atlantikaldia no tendría futuro, son el alma máter del festival. Aclarada esa cuestión, aprovecho la ocasión para invitar a todo el que quiera disfrutar de la música y demás expresiones culturales del Atlántico, ya que tendremos invitados de Irlanda, Québec, Marruecos, etc. Todos ellos y ellas tendrán una cita en Errenteria del 18 al 21 de septiembre.

¿Qué puede ofrecer el festival al municipio?

Infinidad de cosas, pero sobre todo la posibilidad de sinergias e intercambios culturales de primera fila.

Para concluir, ¿esta primera edición vendrá acompañada de nuevas ediciones?

Nuestra intención es darle continuidad al proyecto, ir creciendo poco a poco. Eso sí, nuestro primer reto no debe ir más allá de la primera edición, y el objetivo es organizar un festival de calidad. Luego ya se verá. En octubre haremos una valoración, que dibujará la hoja de ruta a seguir. Lo que tenemos claro es que no seguiremos solamente por inercia.

JAIALDIAREN ESPAZIOA ESPACIO DEL FESTIVAL



Karpa handi bat jarriko da, eta bertan eskainiko dira kontzertu nagusiak. Karpa hori herritarren topagune izango da, kontzertuez gain jaialdiko programako erreferentzia izango da.

Errenteriako kaleetan **artisau-azoka** izango da. **Gamon Zumardian** jarriko den azoka honetan material desberdinak lantzen dituzten 30 postu egongo dira eta gehienak, itsasoaren ingurukoak izanik. Adibidez, burdinaren ingurukoak, zuraren gainekoak, etab. Salmentako artisau-postuez gain, lan egiteko modua ikusteko artisau erakustaldiak egongo dira.

Horrez gain, haurrentzako artisau-lantegiak egingo dira. Musika-talde ibiltariak eta kantujirak ibiliko dira giroa animatzen. Asmoa herri osoak jaialdian parte hartzea denez, herria atondu egingo da.

- Karpa handian kontzertuak, emanaldiak eta gastronomiaren espazioa.
- Artisautza azoka, **Gamon Zumardia**. 30 artisau postu.
- Artisautza erakusketak eta erakustaldiak, **Panier**.
- Artisau haur tailerrak eta musika emanaldiak.
- Musika emanaldiak, **Foru Plaza**.
- Musika emanaldiak, **Herriko Plaza**.

Se colocará una gran carpa que acogerá los principales conciertos. La carpa será, a su vez, el punto de encuentro de los ciudadanos y referente en el programa del festival.

El **mercado artesano** se colocará en las calles de Errenteria, concretamente en la **Alameda de Gamón**. 30 puestos, la mayoría vinculados al mar, trabajarán distintos materiales como el hierro o la madera. Además de los puestos de venta, se realizarán exposiciones para ver trabajar in situ a los artesanos y artesanas.

La zona de los niños y niñas será con distintos talleres de artesanía. Los grupos de música itinerantes y la kantujira se encargarán de animar el ambiente. Todo el pueblo se acondicionará para animar a todos y todas a participar.

- Una carpa grande para conciertos, actuaciones y el espacio gastronómico.
- El mercado artesano, **Alameda de Gamón**: 30 puestos de artesanía.
- Exposiciones y exhibiciones de artesanía, **Panier**.
- Talleres para niños y niñas y actuaciones musicales.
- Actuaciones musicales, **Foru Plaza**.
- Actuaciones musicales, **Herriko Plaza**.

ESPACE DU FESTIVAL

Atlantikaldia, the Atlantic peoples' music and culture festival, will fill all corners of Errenteria with activities. The hub of the festival will be Plaza Lehendakari Aguirre, where a huge tent will serve as the main concert venue and meeting point.

The streets of Errenteria will be steeped in history. Everyone is invited to take part in the heritage that is still very much alive in the collective memory and make-up of the people of Errenteria.

FESTIVAL SPACE

Irailaren 18tik 21era Atlantikaldia Atlantikoko herrien musika eta kultura jaialdia antolatuko da lehen aldiz Errenterian. Izenak ondo dioen moduan, Errenteria Atlantikoak lotzen dituen herrien topagune, lekuko eta eszenatoki bilakatuko da. Lau egunez jai giroa nabarmenduko da Errenteriako kaleetan. Musika emanaldiak, erakusketak, artisau-azokak, dantza emanaldiak, bisita gidatuak, arrantza saioak Oïartzun ibaian, jolasak, herri bazkaria, estropadak, ...